



NAFARROAKO PARLAMENTUKO

ALDIZKARI OFIZIALA

V. legegintzaldia

Iruñean, 2000ko urriaren 5ean

79 ZK.

A U R K I B I D E A

B SAILA:

Foru Lege Proposamenak:

- Foru Lege proposamena, Nafarroako Errege Bardea Natur Parke deklaratzeko duen apirilaren 6ko 10/1999 Foru Legea aldatzekoa. Osoko Bilkurak aintzat hartua (2. or.).
- Foru Lege proposamena, Naturguneei buruzko ekainaren 17ko 9/1996 Foru Legea aldatzekoa. Osoko Bilkurak bazter utzia (2. or.).
- Foru Lege proposamena, Nafarroako Ikus-entzunezkoen Kontseilu Nagusiari buruzkoa. Osoko Bilkurak bazter utzia (2. or.).

D SAILA:

Hitzarmenak:

- Hitzarmena, Lan eta Gizarte Aferetako Ministerioarekin sinatu beharrekoa, gazteentzako aterpetxeen presentzia eta sustapenerako partzuergoari atxikitzeko. Osoko Bilkuraren baimena (3. or.).

E SAILA:

Jabeldurak, Mozioak eta Adierazpen Politikoak:

- Erabakia. Horren bidez, Espainiako Gobernua premiatzen da herrialde txiroenen kanpo zorra deusezta dezan. Osoko Bilkurak onetsia (4. or.).
- Mozioa, Euskal Herritarrok Parlamentuko Taldeak aurkeztua. Horren bidez, Nafarroako Gobernua premiatzen da babes ofizialeko etxebizitzak esleitzeko arauak aldatzea. Atzera bidalitako mozioa (4. or.).
- Mozioa. Horren bidez, Nafarroako Gobernua premiatzen da kanpo zorra deusezta dezan. Osoko Bilkurak bazter utzia (5. or.).
- Mozioa. Horren bidez, Nafarroako Parlamentuak adierazten du ados dagoela 2000ko Emakumeen Mundu Martxarekin. Osoko Bilkurak bazter utzia (5. or.).

H SAILA:

Bestelako testu arau-emaileak:

- 8/2000 Foru Dekretua, urtarrilaren 10ekoa. Aldatzen du Balio Erantsiaren gaineko Zergari buruzko abenduaren 30eko 19/1992 Foru Legea. Osoko Bilkurak berretsia (6. or.).

B saila:
FORU LEGE PROPOSAMENAK

Foru Lege proposamena, Nafarroako Errege Bardea Natur Parke deklaratzeko duen apirilaren 6ko 10/1999 Foru Legea aldatzekoa

OSOKO BILKURAK AINTZAT HARTUA

Foru parlamentari José M^a Aierdi Fernández de Barrena jaunak ondoko Foru Lege proposamena aurkeztu zuen: "Foru Lege proposamena, Nafarroako Errege Bardea Natur Parke deklaratzeko duen apirilaren 6ko 10/1999 Foru Legea aldatzekoa".

Biltzarrak, 2000ko irailaren 28an egindako Osoko Bilkuran, aurkeztutako Foru Lege proposa-

mena aintzat hartzea erabaki zuen. Proposamen hori 2000ko ekainaren 6ko 47 zenbakiko Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitaratu zen.

Iruñean, 2000ko irailaren 29an

Lehendakaria: José Luis Castejón Garrués

Foru Lege proposamena, Naturguneei buruzko ekainaren 17ko 9/1996 Foru Legea aldatzekoa

OSOKO BILKURAK BAZTER UTZIA

Biltzarrak, 2000ko irailaren 28an egindako Osoko Bilkuran, foru parlamentari José M^a Aierdi Fernández de Barrena jaunak aurkeztutako naturguneei buruzko ekainaren 17ko 9/1996 Foru Legea aldatzeko Foru Lege proposamena bazter uztea erabaki zuen. Proposamen hori 2000ko

ekainaren 6ko 47 zenbakiko Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitaratu zen.

Iruñean, 2000ko irailaren 29an

Lehendakaria: José Luis Castejón Garrués

Foru Lege proposamena, Nafarroako Ikus-entzunezkoen Kontseilu Nagusiari buruzkoa

OSOKO BILKURAK BAZTER UTZIA

Biltzarrak, 2000ko irailaren 28an egindako Osoko Bilkuran, Socialistas del Parlamento de Navarra Parlamentuko Taldeak aurkeztutako Nafarroako Ikus-entzunezkoen Kontseilu Nagusiari buruzko Foru Lege proposamena bazter uztea erabaki zuen. Proposamen hori 2000ko ekainaren

6ko 47 zenbakiko Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitaratu zen.

Iruñean, 2000ko irailaren 29an

Lehendakaria: José Luis Castejón Garrués

D saila:
HITZARMENAK

**Hitzarmena, Lan eta Gizarte Aferetako Ministerioarekin sinatu behar-
koa, gazteentzako aterpetxeen presentzia eta sustapenerako partzuer-
goari atxikitzeko**

OSOKO BILKURAREN BAIMENA

Nafarroako Parlamentuak, 2000ko irailaren 28an egindako Osoko Bilkuran, Foru Diputazioari ondoko hitzarmena izenpetzeko eskatutako baimena ematea erabaki zuen: "Hitzarmena, Lan eta Gizarte Aferetako Ministerioarekin sinatu behar-koa, gazteentzako aterpetxeen presentzia eta sustapenerako partzuegoari atxikitzeko". Haren

testua 2000ko irailaren 5eko 68 zenbakiko Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitaratu zen.

Iruñean, 2000ko irailaren 29an

Lehendakaria: José Luis Castejón Garrués

E saila:
JABELDURAK, MOZIOAK ETA ADIERAZPEN POLITIKOAK

Erabakia. Horren bidez, Espainiako Gobernua premiatzen da herrialde txiroenen kanpo zorra deusezta dezan

OSOKO BILKURAK ONETSIA

Nafarroako Parlamentuak, 2000ko irailaren 28an eginiko Osoko Bilkuran, ondoko erabakia onetsi zuen: "Erabakia. Horren bidez, Espainiako Gobernua premiatzen da herrialde txiroenen kanpo zorra deusezta dezan".

Biltzarreko Erregelamenduko 112. artikuluan ezarritakoa betez, aipatu erabakia Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzen da.

Iruñean, 2000ko irailaren 29an

Lehendakaria: José Luis Castejón Garrués

Erabakia. Horren bidez, Espainiako Gobernua premiatzen da herrialde txiroenen kanpo zorra deusezta dezan

Nafarroako Parlamentuak Espainiako Gobernua premiatzen du herri txiroen kanpo zorraren arazo larriaren aurrean alde batera gelditu ez dadin eta herri txiroenen zorra ezabatzeko neurriak har ditzan.

Mozioa. Horren bidez, Nafarroako Gobernua premiatzen da babes ofizialeko etxebizitzak esleitzeko arauak alda ditzan

ATZERA BIDALITAKO MOZIOA

Euskal Herritarrok Parlamentuko Taldeak, ondoko mozioa aurkeztu zuen: "Mozioa. Horren bidez, Nafarroako Gobernua premiatzen da babes ofizialeko etxebizitzak esleitzeko arauak alda ditzan".

Osoko Bilkurak, 2000ko irailaren 28an egindako bileran, Euskal Herritarrok Parlamentuko Tal-

deak aipaturako mozioa atzera bidali zuela jakitun zegoela adierazi zuen. Mozio hori 2000ko maiatzaren 10eko 39 zenbakiko Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitaratu zen.

Iruñean, 2000ko irailaren 29an

Lehendakaria: José Luis Castejón Garrués

Mozioa. Horren bidez, Nafarroako Gobernua premiatzen da kanpo zorra deusezta dezan

OSOKO BILKURAK BAZTER UTZIA

Euskal Herritarrok, Izquierda Unida de Navarra-Nafarroako Ezker Batua, Nafarroako Demokraten Elkargunea eta Eusko Alkartasuna/Eusko Alderdi Jeltzalea-Partido Nacionalista Vasco Parlamentuko Taldeek ondoko mozioa aurkeztu zuten: "Mozioa. Horren bidez, Nafarroako Gobernua premiatzen da kanpo zorra deusezta dezan".

Biltzarrak, 2000ko irailaren 28an egindako Osoko Bilkuran, aurkeztutako mozioa baztertu zuen. Mozio hori 2000ko maiatzaren 15eko 40 zenbakiko Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitaratu zen.

Iruñean, 2000ko irailaren 29an

Lehendakaria: José Luis Castejón Garrués

Mozioa. Horren bidez, Nafarroako Parlamentuak adierazten du ados dagoela 2000ko Emakumeen Mundu Martxarekin

OSOKO BILKURAK BAZTER UTZIA

Euskal Herritarrok, Izquierda Unida de Navarra-Nafarroako Ezker Batua, Nafarroako Demokraten Elkargunea eta Eusko Alkartasuna/Eusko Alderdi Jeltzalea-Partido Nacionalista Vasco Parlamentuko Taldeek ondoko mozioa aurkeztu zuten: "Mozioa. Horren bidez, Nafarroako Parlamentuak adierazten du ados dagoela 2000ko Emakumeen Mundu Martxarekin".

Biltzarrak, 2000ko irailaren 28an egindako Osoko Bilkuran, aurkeztutako mozioa baztertu zuen. Mozio hori 2000ko uztailearen 6ko 59 zenbakiko Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitaratu zen.

Iruñean, 2000ko irailaren 29an

Lehendakaria: José Luis Castejón Garrués

H saila:
BESTELAKO TESTU ARAU EMAILEAK

8/2000 Foru Dekretua, urtarrilaren 10ekoa. Aldatzen du Balio Erantsiaren gaineko Zergari buruzko abenduaren 30eko 19/1992 Foru Legea

OSOKO BILKURAK BERRETSIA

Nafarroako Parlamentuko Osoko Bilkurak, 2000ko irailaren 28an egindako bileran, erabaki zuen ondoko Foru Dekretua berrestea: "8/2000 Foru Dekretua, urtarrilaren 10ekoa. Aldatzen du Balio Erantsiaren gaineko Zergari buruzko abenduaren 30eko 19/1992 Foru Legea". Dekretu hori

2000ko irailaren 25eko 74 zenbakiko Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitaratu zen.

Iruñean, 2000ko irailaren 29an

Lehendakaria: José Luis Castejón Garrués



NAFARROAKO PARLAMENTUKO
ALDIZKARI OFIZIALA

HARPIDETZA
ORRIA

Izen-deiturak

Helbidea

Telefonoa *Hiria*

P. K. *Probintzia*

Ordaintzeko:

Dirua Nafarroako Aurrezki Kutxako 2054/0000 41 110007133.9 zenbakiko kontu korrontera igorri
edo bertan sartu

HARPIDETZAREN PREZIOA ALDIZKARI OFIZIALA ETA BILKURA EGUNKARIA Urte bat..... 6.200 pta. Aldizkari Ofizialaren aleko prezioa..... 145 » . Bilkura Egunkariaren aleko prezioa..... 180 » .	IDAZLARITZA ETA ADMINISTRAZIOA NAFARROAKO PARLAMENTUA «Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofiziala» Arrieta 12, 3 31002 IRUÑA
--	--